


Ingresatua izateko lehenengo arrazoia zirkulazio gaixotasunak dira gizonen artean, eta haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa emakumeen artean

Ospitalizazio-adinak, batez beste: 57 urte gizonentzat eta 55 emakumeentzat

2007an, biztanleriaren osasun-egoera orokorra diagnostikatutako eta ospitaleetan tratatutako (erikortasuna) gaixotasunen bidez neurturik, zirkulazio-sistemaren gaixotasunak ditugu aurrenak ospitalizazio arrazoiaren artean gizonentzat eta hirugarrena emakumeentzat; haurduntza, erditze eta erdiberriaroko gaixotasunen eta nerbio-sistemaren eta zentzumeneren organoen gaixotasunen ondoren, Eustaten datuen arabera.

2007an, akutuen ospitaleetan, 297.100 ospitalizazio izan ziren; %48,8, gizonak, %51,2, emakumeak. Ospitalizatutako pertsonen %42,1ek 65 urte edo gehiago zituzten.

1. trafikoa. Alta hartutako paziente-tasa, 1.000 biztanleko, sexuaren eta adinaren arabera, 2007an



Iturria: Eustat

Ospitalizazio-adinak, batez beste, 2007an: 57 urte gizonentzat eta 55 emakumeentzat. 1.000 biztanleko eta adin-tarte guztietan gizonek alta gehiago izan zituzten, 20-44 urte bitartean izan ezik; haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa dira "errudunak."

Zahartzeak eragindako endekatzea da 65 urte eta gehiagoko pertsonen ospitalizazio-tasa altuen arrazoia; tasa horiek haziz doaz adinarekin, eta 85 urte baino gehiagoko pertsonen artean 1.000 biztanleko 392 da. Zeharo beste aldean, urtebete baino gutxiagoko taldean ere altuak dira tasak, batez ere jaio orduko pisu txikiagatik eta arnas-gaixotasunengatik (bronkitis eta bronkiolitis akutuek).

Patologia sarrienen gainerako taldeen artean, badira aldeak sexuen artean: arnas gaixotasunak (bronkitis kronikoa, batez ere) eta digestiboak (iztai-etena) ugariagoak dira gizonen artean; geniturinarioak, berriz, emakumeen artean.

Ospitaleetan artatutako erikortasun kausak aldatu egiten dira adinarekin. Adin-taldeetan ibiliz gero, 0-14 urteen artean ospitalizazio kausarik ugariak arnas gaixotasunak dira (amigdalitisa eta asma). 15-44 urteen artean, emakumeenak haurduntza, erditzea eta erdiberriaroko asalduek; gizonenak haustura eta lesioak (erradioa, kubitua eta belauna). 45-64 urteen artean, gizonenak gaixotasun digestiboak (iztaiko etena), eta emakumeenak asalduek osteomuskularrak (belaunean eta oinean). Azkenik, 65 urtetik aurrera, gizonenak zirkulazio-gaixotasunak (gutxiegitasun kardiakoa); emakumeenak nerbio-sistema eta zentzumenen organoetakoak (begi-lausoa bereziki).

2. grafikoa.- Akutuen ospitaleetan alta emandako pazienteak, sarrien izaten diren diagnostiko-talde handien arabera, 2007.



Iturria: Eustat

Ospitalizatutakoen artean, %2,6 hil ziren. Gizonen artean maiz gertatutako hiltzeko adina 78 urte izan ziren, 87 emakumeen artean. Heriotza-kausa nagusiak, tumoreak gizonentzat (trakea, bronkioak, birikak) eta zirkulazio gaixotasunak (gutxiegitasun kardiakoa) emakumeentzat.

Pertsona bera behin baino gehiagotan ospitaleratzea eragin zutenen artean ondokoak ditugu: mantentze-kimioterapia, bronkitis kronikoa (gizonen artean sarriago) eta bihotz-gutxiegitasuna (emakumeen artean sarriago).

2007an ospitaleetan egindako kirurgi prozedura eta interbentzioez, %55,7 emakumei egin zitzaizkien eta %44,3 gizonei. Emakumeentzako kirurgi jarduera handiagoaren arrazoia erditze inguruko prozedura obstetrikokoak dira, emakumei egindako interbentzioen %21.

Haurduntza eta erditzea bazter utzita, aparatu muskulueskeletikoaren gaineko operazioak lirateke ugariak, bi sexuentzat. Gainerako interbentzioen artean aparatu digestiboarenak eta kardiobaskularrarenak izan ziren ugariak gizonen artean eta begi eta azalekoak (titi operazioak) emakumeen artean.

1. taula: Alta hartutako pazienteak, diagnostiko-talde handien eta sexuaren arabera, 2007. urtea.

Diagnostiko-talde handiak	2007		Gizonak		Emakumeak	
	Altak	Guztira %	Guztira	%	Guztira	%
Total	297.100	100	145.075	100	152.025	100
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	36.243	12,2	21.009	14,5	15.234	10,0
Digestio-aparatuko gaixotasunak	33.751	11,4	20.015	13,8	13.736	9,0
Nerbio-sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak	30.831	10,4	12.906	8,9	17.925	11,8
Arnas aparatuko gaixotasunak	27.970	9,4	16.845	11,6	11.125	7,3
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	26.330	8,9	13.200	9,1	13.130	8,6
Neoplasiak (tumoreak)	25.775	8,7	13.851	9,5	11.924	7,8
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	25.706	8,7	-	-	25.706	16,9
Lesioak eta pozoitzeak	21.758	7,3	12.642	8,7	9.116	6,0
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	17.257	5,8	7.411	5,1	9.846	6,5
Gaizki zehaztutako sintomak, ezaugarriak eta egoerak	13.837	4,7	7.703	5,3	6.134	4,0
Beste batzuk	11.743	4,0	5.621	3,9	6.122	4,0
Azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	5.295	1,8	2.962	2,0	2.333	1,5
Buru-nahasteak	5.084	1,7	2.824	1,9	2.260	1,5
Gaixotasun endokrinoak, nutrizioarenak eta metabolikoak	4.262	1,4	1.907	1,3	2.355	1,5
Gaixotasun infektzioak eta parasito-gaixotasunak	3.425	1,2	2.102	1,4	1.323	0,9
Odoleko eta organo hematopoietikotako gaixotasunak	3.281	1,1	1.626	1,1	1.655	1,1
Sortzetiko anomaliak	2.504	0,8	1.340	0,9	1.164	0,8
Jaiotza-inguruan sortutako gaixotasunak	2.048	0,7	1.111	0,8	937	0,6

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

+Tlf:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp